

EHUler: Aldakuntza proposamena

1. Klaustro bakoitzean eztabaidatutako puntu garrantzitsuenen laburpena bidaltzeko konpromisoa hartzen dugu, zeuk ezer bilatu behar ez izateko eta informatuta jarraitu ahal izateko.
2. Jasotako edozein iradokizun, proposamen, salaketa edo kexa unibertsitate-komunitate osoaren aurrean aurkeztea, arazoari konponbidea bilatzeko bidea erraztuz.
3. Unibertsitatearen hezkuntza-eskaintza defendatzea eta indartzea. Ez du zentzurik hautazko ikasgaiak edo ingeleseko taldeak bertan behera uztea gure fakultatean matrikulazio baxuagatik, baldin eta jadanik gutxieneko notek jende askori sarbidea mugatzen baitiote eta, gainera, Erasmus nazioartekotze-programak indartu nahi badira.
4. Leioako campuserako garraio-sistemaren hobekuntza eskatzea. Egungo errektoreak bere programan campuserako tranbiaren proiektuaren berreskurapena eta busen indarpena lortzeko konpromisua hartu zuen. Oraingoz ez dugu aldaketarik ikusi.
5. Irakasgai bakoitzeko ebaluazio-sistema bakarra eskatzea. Erabat bidegabea da ebaluazio-irizpideak hain desberdinak izatea ikasgai bereko taldeen artean (gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez). Kalifikazioei eragiteaz gain, aukeraturako hizkuntzagatiko diskriminazioa baitakar.
6. Ikasgelak babestea, azterketa-aldietan okupatu ez daitezen. Liburutegiko eta ikasketa-geletako ordutegiak luzatzea asteburuetan.
7. Matrikularen prezio publikoak murrizteko eta beka-sistema indartzeko eskaera egitea.
8. Azterketak erreklamatzeko eta berrikusteko prozedurak sinplifikatzea eta arintzea proposatzea.
9. Ikasleentzako aisialdi-espazioak handitzea.
10. Ikasleek unibertsitatean erabakiak hartzeko prozesuan duten parte-hartze zuzena indartzea.